

KOSTUEN EGITURA

• Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

Hainbat faktoreri erreparatuta, ikusi dugu batez besteko kostuak 9.200€ ingurukoak izango direla, aplikazioa martxan jartzekotan. Bertan, kontuan izan dugu aplikazioa bi hizkuntzetan erabili ahalko dela, Android eta IOS bitartez erabiliko dela, aplikazioa doainekoa izango dela baina bertan iragarkiak egongo direla, email bitartez sortzen direla kontuak edota erabiltzaile bakoitzak bere profila sortu behar duela, besteak beste. Beraz, kosturik garrantzitsuenak aplikazioaren sorreran egongo lirateke.

Bestelako kostuei erreparatuta, esango genuke ez dagoela beste gastu garrantzitsurik: ez ditugu materialak behar aurrera eramateko eta ez da bidalketarik egin behar. Hala ere, aurretik esan bezala, iragarkietan eta jende famatuarekin kolaborazioak egitean kostu handiak izango ditugula aurreikusten dugu. Badirudi iragarki bakoitzeko 500 eta 600 euro inguru irabazten dituela pertsona bakoitzak, eta gure aplikazioa zabaldu nahi badugu, ezinbestekoa izango da iragarki horietan inbertsioak egitea.